

# Euskal kostaldeko fitoplanktona eta bere garrantzia bibalbioen akuikulturan

(Phytoplankton in coastal waters of the Basque Country and its importance in bivalve aquaculture)

Jone Bilbao<sup>\*1,2</sup>, Oihane Muñiz<sup>3</sup>, Marta Revilla<sup>3</sup>, José Germán Rodríguez<sup>3</sup>,  
Aitor Laza-Martínez<sup>1,2</sup>, Sergio Seoane<sup>1,2</sup>

<sup>1</sup> Landare Biologia eta Ekologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU

<sup>2</sup> Research Centre for Experimental Marine Biology and Biotechnology  
(Plentzia Marine Station; PiE-UPV/EHU)

<sup>3</sup> AZTI, Marine Research, Basque Research and Technology Alliance (BRTA)

**LABURPENA:** Akuikulturak azken hamarkadan mundu mailan izan duen garapena itzela izan da, eta horrek Euskal Autonomia Erki-degoan (EAEn) moluskuen akuikultura gauzatzeko nahia piztu du. Gaur egun, muskuiluak ekoizten berriki hasi den akuikultura-eremu bakarra dago EAEn, itsaso zabalean, Mendexako kostaldearen aurrean. Hala ere, sektorea gehiago garatzeko helburuz, beste aukerazko kokaleku batzuk planteatu dira, Mutrikuko portua adibidez. Gauzak horrela, ezinbestekoa da eremu horretako fitoplanktonaren azterketa sakona egitea, bibalbioen energia-iturri eta, aldi berean, gizakiongan toxikotasun-eragile nagusia baita. Azken urteotan, Mendexan eta Mutriku, bibalbioen akuikulturarekin erlazionaturako fitoplanktonaren zenbait ikerketa gauzatu dira, bertako komunitate naturalek bibalbioen akuikulturari eusteko duten egokitasuna ezagutzeko asmoz. Ikerketa horietan fitoplankton-komunitatearen ugaritasuna eta osaketa aztertu ziren, potentzialki toxikoak ziren taxonei arreta berezia eskainiz. Horrez gain, muskuiluen haragian aurkitutako toxina-kontzentrazioa ere neurtu zen. Diatomeoak eta haptofitoak izan ziren Mendexako eta Mutrikuko komunitate fitoplanktonikoen talde nagusiak, dinoflagelatuak aldizkako agerpenekin batera. Horrenbestez, fitoplankton-komunitate horiek muskuiluen hazkuntzarako kalitate nutrizional onuragarria daukatela ikusi da, talde nagusiek gantz azido maila altuak azaltzen dituztelako. Gainera, komunitateetan nagusitzen zen zelula-tamaina (2-20 µm) aproposa da muskuiluen ingestio eta erretentzio eraginkorrerako. Hala ere, Europako beste akuikultura eremu batzuekin alderatuz, Mendexako eta Mutrikuko *a* klorofila-balioak oso baxuak dira, 0,5 µg/L inguruko kontzentrazioekin. Halaber, itsaskien toxikotasun-arriksua adierazten duten zelula-ugaritasuna eta toxinen kontzentrazio-mugak hainbat aldiz gainditu ziren bi eremuetan. *Dinophysis* da generorik arriskutsuena, Mendexan bereziki, genero horren eta bere toxinen (azido okadaikoa) kontzentrazioa handiagoa baita. Horrenbestez, beharrezkoa da fitoplanktonen azterketekin jarraitzea, toxikotasun-arriksu posibleak hauteman eta kontrolatzeko.

**HITZ GAKOAK:** bibalbioen akuikultura, fitoplankton-komunitatea, toxikotasun-arriksua.

**ABSTRACT:** Lately, aquaculture has undergone a great development worldwide and, in the Basque Country, there is an increasing interest for developing it. Nowadays, there is an offshore aquaculture site in Mendexa, which started producing mussels recently. Alternative locations have been discussed to continue developing the sector, such as the port of Mutriku. In this context, studying the phytoplankton community is essential, since it is the main source of energy for bivalves and the main potential toxicity risk. In the last years, several studies on the suitability of the phytoplankton communities from Mendexa and Mutriku as a food resource for bivalves have been carried out. For that, phytoplankton community composition and biomass were analyzed, paying special attention to toxic taxa and concentrations of toxins in mussel flesh. Diatoms and haptophytes, together with dinoflagellates, were the most important groups at both stations in terms of abundance and/or biomass, which could favor mussel growth due to high fatty acid content. Moreover, the predominant cell size of the communities (2-20 µm) would enable an efficient ingestion and retention for mussels. However, chlorophyll *a* was low at both sites comparing with other aquaculture areas in Europe, with an average concentration of 0.5 µg/L approximately. Regarding shellfish toxicity, alert limits were exceeded several times, being *Dinophysis* the most compromising genus for Basque aquaculture, especially in Mendexa, where higher cell abundances and toxin concentrations (okadaic acid) of this genus were recorded. Consequently, the phytoplankton monitoring should be carefully conducted in order to detect possible toxicity risks.

**KEYWORDS:** bivalve aquaculture, phytoplankton community, toxicity risk.

**\* Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Jone Bilbao Antolin. Landare Biologia eta Ekologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa 48940, Espainia. – [jone.bilbao@ehu.eus](mailto:jone.bilbao@ehu.eus) – <https://orcid.org/0000-0002-9278-1515>

**Nola aipatu / How to cite:** Bilbao, Jone; Muñiz, Oihane; Revilla, Marta; Rodríguez, José Germán; Laza-Martínez, Aitor; Seoane, Sergio (2021). «Euskal kostaldeko fitoplanktona eta bere garrantzia bibalbioen akuikulturan». *Ekaia*, 40, 2021, 181-202. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22340>).

Jasotze-data: 2020, abenduak 11; Onartze-data: 2021, urtarilak 14.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

## 1. SARRERA

Fitoplankton-komunitatearen osaketak eta dinamikak eragin nabarmena du akuikulturan, moluskuen hazkuntzara zuzendutakoan bereziki; izan ere, bibalbio filtratzaileen (muskuluak, adibidez) oinarrizko energia-iturria da fitoplanktona [1, 2]. Hori kontuan izanda, eremu bateko fitoplankton-komunitatearen biomasa-ugaritasuna oso faktore garrantzitsua da bertako bibalbioen hazkuntzarako. Bestalde, komunitate fitoplanktonikoaren osaketa ezagutzea ezinbestekoa da, baita ere, fitoplankton-espezie guztiek ez dutelako kalitate berdina bibalbioen elikagai gisa. Zenbait ezaugarri betetzea garrantzitsua da bibalbioen hazkuntzari begira baliagarriak izateko; hala nola, ingestiorako zelula-tamaina aproposa eta osaketa nutrizional egokia izatea [1].

Muskuiluen ingestio- eta erretentzio-eraginkortasuna fitoplankton-espeziearen zelula-tamainaren arabera da. Ikerketa batzuen arabera, 35-45  $\mu\text{m}$ -ko zelula-tamaina da erabateko erretentzio-eraginkortasuna ahalbidetzen duena [3,4]. Beste batzuek, ordea [5, 6], 15-20  $\mu\text{m}$ -ko tartea identifikatu dute erretentzio eraginkorrerako gehieneko tarte bezala. Nolanahi ere, ikertzaile gehienak [7-9] bat datoz erretentzio eraginkorrerako beharrezko neurri-tartea 4-45  $\mu\text{m}$ -ko zelula-tamaina dela baieztatzean [4].


Fitoplanktonaren osaketa nutrizionalari dagokionez, elikagai bezala duen balioa konposizio lipidikoaren arabera da, bereziki gantz azido esentzialen arabera, horiek baitira bibalbio larben energia-iturri nagusia [10, 11]. Fitoplankton-zelulen osaketa lipidiko hori aldatu egiten da espeziearen edo taldearen arabera. Gainera, hainbat ikerketek frogatu duteenez, alga-espezie ezberdinez (gutxienez, haptofito eta diatomeo mota bat) osatutako dietek espezie bakarrarekin osatutakoek baino elikadura-balio altuagoa dute [11-14].

Hala ere, fitoplankton-espezie batzuk, ingestiorako tamaina eta osaketa nutrizional egokia izan arren, gai dira toxinak ekoizteko. Horrek kalte egiten dio akuikulturari; batetik, muskuiluen hazkundera eragin negatiboa izan dezakeelako eta, bestetik, giza kontsumorako arriskutsua izateagatik muskuiluen komertzializazioa eten behar delako. Deskribatutako fitoplankton-espezie guztien artean (3.000 eta 5.000 espezie-bitartean ur gazitan eta beste horrenbeste ur gezatan), 80 inguru dira toxinak ekoizteko gai [15]. Muskuiluek (eta bestelako bibalbio iragazleek) fitoplankton toxikoa elikagai gisa iragazterakoan, toxinak aktiboki pilatu eta kontzentratu egiten dira haien digestio-guruinean [16]. Horren ondorioz, toxinak maila trofiko altuagoetara transferitzen dira, eta gizaki eta bestelako harrapakarien-tzako ere arrisku nabarmena bihurtzen, intoxikazioak eragiteko aukera baitago [17, 18]. Bost dira muskuiluen ingestioaren ondorioz sor daitezkeen pozoidura nagusiak: itsaski-pozoidura amnesikoa (ASP, ingelesez), paralitikoa (PSP), diarreikoa (DSP), neurotoxikoa (NSP) edo azaspirazidoen


bidezko pozoidura (AZP) [15]. Horien artean, ASP, PSP eta DSP dira gizakien osasuna arriskuan jartzen duten pozoidura ohikoenak. Pozoidura horien atzean hainbat toxina daude, azido domoikoa (ASP), saxitoxina eta gonaulaxtoxina (PSP), eta azido okadaiko eta dinofisistoxinak (DSP) hain zuzen ere, eta bere ekoizle nagusiak *Pseudo-nitzschia*, *Alexandrium* eta *Dinophysis* generoak dira, hurrenez hurren. Mundu osoan zehar intoxikazioak ekiditeko prebentzioak eta kalteen arintze-ekintzak martxan jartzen diren arren, ohikoa da konpainia askok denboraldi luzeetan zehar muskuiluen erauzketa eten behar izatea. Gainera, ikusi da fitoplankton toxikoak eragin negatiboa izan dezakeela itsas bibalbioen iragazketan, elikaduran, hazkuntzean, oxigeno-kontsumoan eta biziraupenean [19].

Fitoplankton toxikoaren agerpen-gertaera berriak eta kaltetutako herrialdeen kopurua nabarmen hazi dira azken urteotan [17]. Gorakada hori elementu naturalek (ekaitzek edo korronteek, adibidez) eragindakoa izan daitekeen arren, hainbat ikerketek harremana aurkitu dute inpaktu antropogenikoaren eta fitoplankton kaltegarriaren gorakadaren artean; nekazaritzak, industriak eta hondakinen isurketek eragindako elikagaien kontzentrazio-hazkuntzean oinarritzen da harreman hori [15, 17, 20]. Hala ere, harreman hori unibertetsala izatetik urrun dagoela frogatu da, eta, gehiengotik, kutsadura antropogenikoa fitoplankton-biomasa altuen ondorioz sortutako kalteekin lotzen da, ez biotoxinen ekoizpenarekin [21]. Bestetik, fitoplanktonaren hazkuntzea eta biotoxinen agerpena aldaketa klimatikoarekin ere erlazionatu dute zenbait egilek [22]. Horrez gain, ontzien lasta-urak eta itsaski stock-aren mugimenduak ere espezie toxikoen dispersiorako bi eragile garrantzitsu bihurtu dira [23]. Fitoplankton toxikoaren inguruan egindako ikerketa kopuruaren gorakadak eta jarraipen-programen ugaritzeak ere eragin handia izan du; izan ere, haien presentzia leku gehiagotan identifikatzeko aukera eman du, nahiz eta, ziurrenik, betidanik egon diren bertan [23].

Akuikultura-produkzioari dagokionez, gorakada nabarmena jasan du azken urteotan (1. eta 2. irudiak). Mundu mailan, 1980an 5 milioi tonako ekoizpena izatetik, 2015ean 77 milioi tona ekoiztera pasatu zen, % 21a moluskuak izanik. Gainera, 2015ean, moluskuaren ekoizpen globala 2006an baino 4 milioi tona handiagoa izan zen (16,4 milioi tona) [24]. Europar Batasunaren baitan, Espainia da muskuilu gehien ekoizten dituen herrialdea, urtean 200 mila tona inguru [25]. Are gehiago, 2015ean, Espainian, akuikultura-ekoizpen osoaren % 77a (22 5000 t) muskuiluak (*Mytilus galloprovincialis*) izan ziren [26]. Muskuilu horien % 95a baino gehiago Galizian ekoizten da, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldeko kostaldean [27]. Bertan, egitura flotagarrietan kokatutako soketan hazten dituzte muskuiluak, kostaldeko sarguneetan (*ria* edo itsasadarretan), non ura azalertzeko prozesuek eta estuario-zirkulazioak fitoplankton-produkzioa areagotzen baitute [28, 29].



**1. irudia.** Europar Batasuneko akuikultura-ekoizpenaren eboluzioa 1950-2016 denbora-tartean, FAOren arabera. APROMARetik (2018) eraldatutakoa [30].




**2. irudia.** Espainiako akuikultura-uztaren eboluzioa, tonatan, 1960-2017 denbora-tartean. APROMARetik (2018) eraldatutakoa [30].

## 2. TESTUINGURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

### 2.1. Akuikultura EAEn

Bizkaiko golkoko hego-ekialdean, elikadura-iturri garrantzitsua dira itsaskiak (batez ere, molusku bibalbioak). Hala ere, kontsumitutako molusku gehienak kanpotik ekarritakoak dira; izan ere, eremu horretan, duela gutxi hasi da garatzen bibalbioen akuikultura. Hainbat arrazoi daude horretarako; hala nola, ibai eta estuario nagusiek dituzten uren kalitate-arazoak [31], kostaldeko baldintza hidrodinamiko latzak [32] eta itsas habitatentzako dauden babes- eta kontrol-erregulazio zorrotzak [33].

EAEko bibalbioen akuikulturarako eremu bakarra itsaso zabalean kokatuta dago, Mendexan (Ondarroa eta Lekeitio artean), kostaldetik 2 km-ra (3. irudia). Eremu horretan, 45 m inguruko sakonera dago, eta muskuiluak (*Mytilus galloprovincialis*) hazten dira nagusiki [34, 35], «longline» sisteman kokatuak. Mendexako muskuiluen ekoizpen komertziala 2019an hasi zen. Akuikulturarako eremu hori itsas zabalean kokatzeak hainbat abantaila eskaintzen ditu kostaldeko eremuekin konparatuz gero; hala nola, kostaldean jatorria duten kutsadura-iturrietatik aldenduta egotea, uraren gazitasunaren egonkortasun handiagoa, azaleraren erabilera hobe, eta inpaktu bisual eta ekologiko txikiagoak [36].



**3. irudia.** Euskal kostaldea eta akuikultura-eremuen kokalekuak. Mu: Mutriku; Me: Mendexa. Bilbao *et al.*etik moldatua [37].

Hala ere, akuikultura garatzeko, kostaldetik gertuago dauden beste kokaleku batzuen aukera ere eztabaidatu da; Mutrikuko portua, adibidez. 2016tik, bibalbioen hazkuntzarako plataforma esperimental bat dago Mutrikuko portuaren kanpoaldean, eta, bertan, muskuiluak kaiola flotagarrietan hazten dira. Eredu hori Mendexatik 7,5 km-ra dago, batez besteko sakonera 15 m ingurukoa da, eta olatuen ekintzatik babestuta dago kai-mutur bati esker (3. irudia). Bertara urak isurtzen dituen ibairik egon ez arren, portuak inguruko herritarren (5.300 biztanle, gutxi gorabehera) hondakin-urak tratatzen dituen araztegi baten isurketa jasotzen du. Hala ere, Mutrikuko ur-zutabeak euskal kostaldeko urentzako aurretik deskribatutako baldintza tipikoak erakusten ditu [37], eta araztegiaren eragin nabarmenik ez da behatu.

## 2.2. Fitoplanktonaren ikerketa EAEn

Hainbat ikerketa gauzatu dira euskal kostaldeko fitoplankton-komunitateak ezagutzeko. Ikerketa hauetako gehienen helburua estuario eta itsaso zabaleko uretan dauden fitoplankton-komunitateen egitura taxonomikoa eta dinamikak deskribatzea izan da [2, 38-41]. Gainera, beste asko ere horretako fitoplankton toxikoaren presentzia eta espezie horien taxonomia eta dinamikak ikertzean zentratu dira [42-48]. Hala ere, biotoxinen inguruko ikerketak oso urriak dira eskualde horretan, eta, orain arte, azaspirazido [49] eta pinnatoxinetan [50] bakarrik zentratu dira.

Bibalbioen akuikulturarekin erlazionatutako fitoplanktonaren ikerketak berriki hasi dira EAEnko uretan. 2017an, Muñizek eta lankideek [51] EAEnko kostaldeko 16 puntutan eta itsas zabaleko hiru puntutan 11 urtean zehar bildutako fitoplankton-komunitateen datuak aztertu zituzten, eskualde horrek akuikultura garatzeko zuen ahalmena ebaluatzeko aurretiazko urrats gisa. Gerora, ikerketa horiek ere zehatzetara mugatu dira, eta, azken bi urteotan, Mendexako itsas zabaleko eremuak eta Mutrikuko portuak bibalbioen akuikultura garatzeko duten egokitasuna aztertu da [35, 37, 52].

Mendexako eta Mutrikuko ikerketa horietan fitoplankton-komunitateen egitura aztertu zen Utermöl teknikaren [53] bidez. Mikroskopio bidezko teknika horrekin, hainbat osagaien zelula-kontzentrazioa (zelula/L) zenbatetsi eta, taxon bakoitzaren biobolumenean oinarrituz, osagaien biomasa ( $\mu\text{g C/L}$ ) ezagutu zen, eta baita tamainaren arabera ingestiorako eta erretentziorako aproposak ziren aztertu ere. Gainera, *in situ* neuritutako *a* klorofila-balioak ere erabili ziren biomasa fitoplanktoniko totalaren balioespen gisa. Horrez gain, Bilbaok eta lankideek [37] taxon toxikoen presentzia eta ugaritasuna eta muskuiluen haragian aurkitutako toxina-kontzentrazioak aztertu zituzten Mendexan eta Mutrikun. Itsaskien bidezko intoxikazio-arriskua zehazteko, zelula-kontzentrazioen alerta-mailak aplikatu zitzaizkien ardura handiena sortzen duten sindromeen (ASP, PSP, DSP) eragileei. Horretarako erabili zi-

ren muga-balioak [54] aurreko ikerketetan euskal itsasoko uretan erabili direnen artean murriztaileenak izan ziren [51]. Muskuiluetako toxina-edukiari dagokionez, Europar Batasunak arautzen dituen toxinen kontzentrazioa aztertu zen, legezko mugak gainditzen ziren zehazteko asmoz.

### **3. MENDEXAKO ETA MUTRIKUKO FITOPLANKTON-KOMUNITATEAK**

#### **3.1. Fitoplanktonen ugaritasuna**

Mendexako eta Mutrikuko komunitate fitoplanktonikoen ugaritasuna aztertzeko erabilitako parametroei (zelula-kontzentrazioa, karbono-unitateetan emandako fitoplankton-biomasa eta *a* klorofilaren kontzentrazioa) dagokienez [35, 52], bi eremuetan emaitza oso antzekoak lortu ziren.

Mendexako itsas zabaleko estazioan, zelula-kontzentrazioa  $3,4 \times 10^4$  eta  $5,1 \times 10^6$  zelula/L bitartekoa izan zen, eta, Mutrikuko portuko estazioan  $1,9 \times 10^4$  zelula/L eta  $7,1 \times 10^5$  zelula/L bitartekoa; bi eremuetako zelula-ugaritasun minimoak oso antzekoak izan ziren. Gainera, bi lekuetan erregistratutako batez besteko zelula-kontzentrazioak euskal kostaldean aurretik egindako ikerketetan [51] lortutako balioen barruan daude. Fitoplankton-biomasari dagokionez, balio maximoetan ezberdintasun nabarmena ikusi zen Mendexa (435  $\mu\text{g C/L}$ ) eta Mutriku (94,4  $\mu\text{g C/L}$ ) artean. Hala ere, pentsatu behar da emandako biomasa-datuak zelulen biobolumenean oinarritutako zeharkako balioespenak direla, eta horri lotutako errorea daramatela [55, 56]. Biomasa/*a* klorofila erlazioak aldakortasuna erakutsi badezake ere, ohikoagoa da *a* klorofilaren balioa erabiltzea biomasa fitoplanktoniko totalaren balioespenerako. Horrela, *a* klorofilaren kontzentrazioarekin, aukera handiagoa dago Mendexako eta Mutrikuko biomasa-balioak beste akuikultura-eremu batzuekin konparatzeko.

Mendexak eta Mutrikuk *a* klorofila-balio baxuak erakutsi zituzten Muñizek eta lankideek [35] eta Bilbaok eta lankideek [52] egindako ikerketetan. Batetik, Mendexan *a* klorofilaren batez besteko kontzentrazioa 0,6  $\mu\text{g/L}$  izan zen; 6  $\mu\text{g/L}$ -ko maximoa martxoan lortu zen. Bestetik, Mutrikuko batez besteko *a* klorofilaren kontzentrazioa 0,5  $\mu\text{g/L}$ -koa izan zen; 1,4  $\mu\text{g/L}$ -ko maximora heldu zen otsailean. Bi eremuetan 1  $\mu\text{g/L}$ -z azpiko kontzentrazioak egon ziren gehienetan. Ikertzaile batzuen arabera [57, 58], muskuiluek elikatzeke iragazketa aktibatzeke behar duten gutxieneko *a* klorofila kontzentrazioa 0,5  $\mu\text{g/L}$  da. Atariko balio hori gainditu egin zen Mendexako laginen % 62an eta Mutrikuko laginen % 54an. Horrek Mendexa eta Mutriku antzeko bihurtzen ditu akuikultura garatzeko duten egoekitasunari dagokionez, fitoplankton-biomasa totalari erreparatuz gero.

Batez besteko *a* klorofila balio baxu horiek ohikoak dira EAEko ur euhalinoetan, eta eremuaren baldintza oligotrofikoak islatzen dituzte. Euskal kostaldean aurretik egindako ikerketek [59] adierazi zutenez, gainazaleko uren *a* klorofila-balio maximoak  $2\text{ }\mu\text{g/L}$  eta  $4\text{ }\mu\text{g/L}$  artekoak izan ohi dira. Europako beste akuikultura-eremu batzuekin alderatuta, Mendexako eta Mutrikuko biomasa-balioak, eta oro har euskal kostaldekoak, oso baxuak dira. Galiziako itsasadarretan egindako ikerketek —han izaten da Espainiako muskuiluen ekoizpen handiena—  $0,7\text{ }\mu\text{g/L}$  (neguan) eta  $13,6\text{ }\mu\text{g/L}$  (udaberrian) bitarteko *a* klorofila-balioak erregistratu zituzten [29]; zenbaitetan,  $20\text{ }\mu\text{g/L}$ -ra ere heldu ziren [60]. Spyrakos-ek eta lankideek [61] ere Mendexan eta Mutrikun aurkitutako *a* klorofila-kontzentrazioak baino altuagoak lortu zituzten Rias Baixasen:  $1\text{ }\mu\text{g/L}$ -z azpikoak neguan,  $5\text{ }\mu\text{g/L}$  ingurukoak udan eta  $8\text{ }\mu\text{g/L}$ -ra artekoak udaberri eta udazkenean. Europako beste akuikultura-eremu ezagunetan egindako ikerketek, Mantxako kanaleko ekialdean (Frantzian) egindakoek adibidez, berresten dute Mendexako eta Mutrikuko *a* klorofila-balioak baxuak direla,  $1$  eta  $25\text{ }\mu\text{g/L}$  bitarteko [62] edo  $0,9$  eta  $18,9\text{ }\mu\text{g/L}$  bitarteko kontzentrazioak [63] aurkitu baitira bertan.


Argitu behar da uretan momentu konkretu batean neurtutako fitoplankton-biomasak ez duela zuzenean maila trofiko altuagoek asimila dezaketen kopururik adierazten. Horren neurri zehatzagoa ekoizpen primarioarena da. Ezagutzen diren Bizkaiko golkoko hegoaldeko gainazaleko uren ekoizpen primarioaren balioak nahiko baxuak dira Europako beste eremu batzuekin konparatuz, bereziki euskal kostaldekoak [64, 65]. Hori bat dator, ez bakarrik Mendexan eta Mutrikun baizik eta, euskal kostalde osoan zehar aurkitutako *a* klorofila-balio baxuekin [66]. Gainera, *a* klorofila-kontzentrazioekin bezala, EAEko uretan erregistratutako ekoizpen primarioaren balio altuenak askoz txikiagoak dira Galiziako itsasadarretan aurkitutako maximoak baino [67].

### **3.2. Fitoplankton-komunitatearen osaketa**

Eremu bateko fitoplankton-biomasa totalaren kontzentrazioa bibalbioen hazkuntzarako faktore garrantzitsua izan arren, landa-azterketetan ikusi izan dan bibalbioen hazkuntza-tasak fitoplanktoneko osagai zehatzen ugaritasunarekin erlazionatuta zeudela, komunitateko biomasa totalarekin baino gehiago [68].

Azken ikerketen arabera [35, 52], Mendexako eta Mutrikuko fitoplankton-komunitateak haptofitoz, kriptofitoz, diatomeoz eta dinoflagelatuz osatuta zeuden nagusiki, eta azken horien presentzia handiagoa izan zen itsas zabaleko eremuan. Gainera, aipatzekoa da alga berdeen (klorofitak eta euglenofitak) presentzia ere, batez ere Mutrikun. Orokorrean, haptofitoak izan ziren bi eremuetako talderik ugariena zelula-kontzentrazioari dagokionez; hala ere, beste talde batzuek ere ekarpen nabarmena egin zioten komu-

nitatearen kontzentrazio totalari. Mendexan, aipagarria da dinoflagelatuak eta diatomeoak izandako garrantzia; Mutriku, berriz, kriptofito eta diatomeoena. Gainera, fitoplankton talde bakoitzaren kontzentrazioa aldatuz joan zen urteko sasoiaren arabera (4. irudia), eta, horrekin batera, baita bakoitzak fitoplankton-kontzentrazio totalari egiten zion ekarpena ere. Ikusitako joerak berdinak izan ziren bi ikerketa-eremuetan: diatomeoen ugaritasun maximoa neguan izan zen, dinoflagelatu eta kriptofitoena udazkenean, eta haptofitoena udaberri eta uda artean.



**4. irudia.** Fitoplankton talde nagusiek ikerketa-eremuetako zelula-ugaritasunari eta biomasari urtaro bakoitzean egiten dioten ekarpena, gainazaleko uretan [35, 52].

Bestalde, Mendexan eta Mutriku aurkitutako fitoplankton talde ugarienek eremu horietako biomasa totalari egiten zioten ekarpena aztertzerakoan, ikusi zen ekarpen handiena egiten zuen taldea ez zela beti zelula-kontzentrazio altueneko taldea [35, 52]. Mendexan, biomasak zelula-ugaritasunaren dinamika berdina jarraitu zuen: diatomeoen biomasa neguan gailendu zen, eta, gaine-

rako urtaroetan, haptofitoek egin zuten ekarpen handiena. Bestalde, dinoflagelatuen ekarpena nabarmena izan zen udan eta udazkenean. Mutrikun, ordea, diatomeoak izan ziren urte osoan zehar biomasa totalari ekarpen handiena egin zion taldea; % 52 eta % 79 bitarteko batez besteko ekarpena, hain zuzen ere. Gainera, aipatzekoa da dinoflagelatuek biomasa totalari egindako ekarpena ere (% 8-23), nahiz eta haien zelula-ugaritasuna ez zen oso handia izan.

Horrenbestez, ikusi da haptofitoak eta diatomeoak direla Mendexako eta Mutrikuko fitoplankton-komunitateetako osagai nagusiak, dinoflagelatuen noizbehinkako ekarpen garrantzitsuak ahaztu gabe. Horrek adierazten du, alde kualitatibotik, ona dela bi eremuetako komunitateek bibalbioen akuikultura gauzatzeko duten kalitate nutrizionala. Diatomeoak aberatsak dira azido eikosapentanoikoan (EPA), eta haptofitoak azido dekosahexanoikoaren (DHA) iturri garrantzitsua [69]. EPA eta DHA bibalbioek behar dituzten gantz azido esentzialetako bi dira; lehenengoak funtzio energetikoa du [70, 71], eta bigarrenak hazkundera sustatzen du [72]. Hori dela eta, *Isochrysis galbana* eta *Pavlova lutheri* bezalako espezieak elikagai gisa oso erabiliak dira moluskuen akuikulturan, eta ohikoa da espezie horiez eta diatomeoz osatutako mikroalga-dieta mistoak erabiltzea bibalbio-haztegi-tan [69, 73-75]. Dinoflagelatuei dagokienez, bibalbioen hazkuntzarako garrantzitsuak diren gantz azidoak dituzte, DHA konkretuki [34]. Gainera, muskuiluen elikaduraren inguruan egindako ikerketek [76] aurkitu dute dinoflagelatuak eta diatomeoak direla, gainerako fitoplankton taldeekin konparatuz, muskuiluengan erretentzio-tasa altuenak erakusten dituzten taldeak.


Horrez gain, deskribatutako fitoplankton-komunitatearen osaketa kontuan izanda, 2-20  $\mu\text{m}$  bitarteko tamaina duten zelulen nagusitasun argia ikusi zen (% 90 inguru), bai Mutrikun [52] baita Mendexan [51] ere. Hor-taz, 4-45  $\mu\text{m}$ -ko zelula-tamaina egokitzen hartzen dela jakinda [4], Mendexako eta Mutrikuko fitoplankton-komunitateak onuragarriak dira muskuiluen hazkuntzarako, baita zelulen tamainaren araberako muskuiluen ingestio- eta erretentzio-eraginkortasunari dagokionez ere. Hala ere, esan beharra dago zelula-tarte horretan sartzen ziren taxon asko kateak eratzen dituzten diatomeoak zirela, eta, horrenbestez, tamaina handiagoko (>20  $\mu\text{m}$ ) taxontzat hartu beharko lirakeela.

### 3.3. Fitoplanktonak toxikotasun-arazoak eragin ditzake?

Bilbaok eta lankideek [37], Mendexan eta Mutrikun 2016 eta 2017 urteen artean egindako ikerketan, potentzialki toxikoak diren 15 taxon identifikatu zituzten; aurretik ere deskribatu izan ziren taxon horiek Bizkaiko golkoko hego-ekialdean egindako ikerketetan [2, 35, 43, 45, 46, 48] (5. irudia). Mutrikun, *Pseudo-nitzschia* spp. diatomeo toxikoa aurkitu zen; dinoflagelatuak, ordea, 12 izan ziren: *Alexandrium* spp., cf. *Azadinium* spp., *Dinophysis* spp., *Dinophysis acuminata*, *Goniaulax* cf. *spinifera*, Gymno-

dinales (*Karlodinium*-like), *Ostreopsis cf. siamensis*, *Phalacroma* spp. eta *Takayama* sp.. Beste fitoplankton taldeetatik taxon bakarra aurkitu zen, *Phaeocystis globosa* haptofitoa. Mendexan, potentzialki toxikoak ziren 15 taxon identifikatu ziren: Mutrikun aurkitutako berdinak gehi *cf. Pseudochattonella* sp., diktiokofizeoa.

Itsaskien akuikulturan toxikotasun-arriskurako ezarritako kontzentrazio-mugei dagokienez, *Pseudo-nitzschia* spp., *Alexandrium* spp. eta *Dinophysis* spp. taxonek arrisku-mugaz gaineko zelula-kontzentrazioak erregistratu zituzten Mendexan eta Mutrikun [37], % 23ko eta % 12ko maiztasunez, hurrenez hurren. Muskuiluen haragian egindako toxinen analisiari erreparatuz, Mendexan egindako laginketen % 85an gaintitu ziren kuantifikazio-mailak; Mutrikun, berriz, % 40an [37]. Hala ere, azido okadaikoa (OA), DSParen eragilea dena, izan zen ikerketa guztian zehar araututako muga-kontzentrazioa gaintitu zuen toxina bakarra.



**5. irudia.** Mendexan eta Mutrikun aurkitutako taxon toxiko azpimarragarrienak: a) *Pseudo-nitzschia* spp.; b) *Alexandrium* spp.; c) *Dinophysis acuminata*; d) *Ostreopsis siamensis*.

*Pseudo-nitzschia* spp. izan zen Mendexan eta Mutrikun aurkitutako taxon toxiko ugariena [37]. Genero horren alerta-muga (50 000 zelula/L) [54] hiru-tan gainditu zen bi eremuetan; hala ere, azido domoikoa (ASParen eragilea) behin bakarrik aurkitu zen muskuiluen haragian, eta bere kontzentrazioak ez zuen muga legala gainditu. Horren arrazoi nagusia izan daiteke zenbatutako *Pseudo-nitzschia* generoko zelulen artean azido domoikoa ekoizten ez zuten espezieak ere zenbatu zirela; izan ere, Utermöhl teknikaren bidez genero horretako espezie gutxi identifika daitezke, eta zenbaketak genero-mailan gertatzen dira askotan. Anduien isolamenduan eta beren ADN eta elektroimikroskopio bidezko analisietan oinarrituz, genero horretako 12 espezie deskribatu ziren Bilboko Abrako uretan [43, 44]. Utermöhl teknikaren bidez identifikagarri direnen artean, euskal kostaldeko uretan toxikoak diren *P. australis*, *P. galaxiae* edo *P. multistriata* espezieak behatu ziren [2, 51]. Azido domoikoa 2016 eta 2017 artean behin bakarrik detektatu bazen ere, Europa osoko itsaskietan aurkitu da, bereziki Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzian [77], eta urtero akuikultura-eremuen itxierak eragin ditu.

*Alexandrium* spp. dinoflagelatuen kasuan, haien presentzia hutsak intoxikazio-arriskua eragiten du, gizakien osasunerako oso arriskutsuak diren saxitoxinak (PSParen eragileak) ekoizteko duten gaitasunaren erruz. Hori kontuan hartuz, arrisku-egoerak lau aldiz detektatu ziren Mendexan eta behin Mutrikun, 2016 eta 2017 arteko zikloan; muskuiluen haragian aurkitutako saxitoxinen kontzentrazioa, ordea, araututako mugaren azpitik egon zen beti [37], ziurrenik, *Alexandrium* spp. taxonaren zelula-kontzentrazioa oso baxua izan zelako (40 zelula/L-ko maximoa). Gainera, *Pseudo-nitzschia* spp. taxonarekin bezala, Utermöhl teknikarekin *Alexandrium* generoko zelulak ez direnez espezie-mailara arte identifikatzen, ezin dira bereizi genero horren espezie toxikoak eta kaltegabeak, eta horrek zaildu egiten du beren monitorizazioa. Aurretik deskribatu izan dira genero horrek euskal uretan duen agerpen-maiztasuna eta ugaritasun urriak [2]. Hala ere, ezagutzen diren genero horren 34 espezieetatik 14 gai dira PSP toxinak ekoizteko [78], eta, beraz, behatutako agerpenak urriak izanda ere, kontuan hartzekoa da muskuiluetan aurkitutako saxitoxina-kontzentrazioa, PSPa fitoplankton toxikoarekin lotutako intoxikazio-sindromerik hedatu eta larriena delako [23].

*Dinophysis* generoari dagokionez, toxikotasun-arriskurako ezarritako zelula-ugaritasunaren muga (100 zelula/L) [54] behin gainditu zen ikerketa-eremu bakoitzean aipatutako epean [37]. Gainera, genero horretako zenbait espeziek ekoizten duten azido okadaikoak (DSParen eragilea) araututako muga-kontzentrazioa gainditu zuen (hiru aldiz) Mendexako eta (behin) Mutrikuko muskuiluetan. Gainera, Bilbaok eta lankideek [37] ikusi zuten *Dinophysis* generoaren eta muskuiluetan aurkitutako azido okadaikoaren kontzentrazioa handiagoa zela Mendexako akuikultura-eremuan, eta toxikotasun-arriskua handiagoa dela itsas zabaleko eremuan. Aipatutako generoak eta horiek ekoizten dituzten toxinak dira bibalbioen akuikulturak pairatzen dituen arrisku nagusiak [79].

